

**HIRIGINTZA FITXA. - 17 SO. GI-3291 ERREPIDEA. ITXASPEKO LOTUNEA**  
LURZORU HIRITARREZINA**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**

GI-3291 errepidea da, sare horian –lokala– txertatua, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauak hari esleitu dion funtzionaltasunaren arabera.

**1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.**

Ez dago.

**1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA.**

Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak.  
Errepideen Plan Orokorra.  
Gipuzkoako Errepideen Lurralde Plan Sektoriala.

**1.3. HIRI EGITURA.**

Lurraldearen egitura organikoa eratzen duen elementua.

**1.4. ESPARRUAREN AZALERA: 13.041 m<sup>2</sup>****2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarrezina.  
2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Komunikazioen sistema orokorra. Bide sareak. Errepide lokalak (11. artikulua: E.1.2).  
2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Bideko jabari publikoko zona zedarritua geratu zen Foru Aldundiak Errepide eta Bideen Inbentarioa egin zuenean, eta Hiri Antolaketako Arauen dokumentuan jasotakoa da.

**3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.****3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.**

Hasiera batean, Errepideen Foru Arauaren bi zonak ezarriko dira:

- Bideko jabari publikoko zona (8. artikulua).
- Babes zona: 30 metro (53. artikulua).

**3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.**

Errepideen Foru Arauaren (17/1994 FA) araberakoak.

**3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.**

Probetxamendua. Errepideen Foru Arauaren (17/1994 FA) araberakoa.  
Eraikuntza. Errepideen Foru Arauaren (17/1994 FA) araberakoa.  
Jabaria. Publikoa (Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren departamentua).  
Erabilera orokorra. Komunikazioak.  
Erabilera baimenduak.

- Herritar guztien zirkulazio libreko jabari publikoko zona.

Zirkulazio edo iragatearekin bateragarria den beste edozein erabilera, esparruaren segurtasuna eta erosotasuna murrizten ez baditu (50. artikulua).

- Babes zona: Bide segurtasunarekin eta errepidea nahiz bidea mantentzearekin bateragarriak diren eraikuntzak eta erabilerak.

Zerbitzuguneak eta hornitegiak. Mugak: 58. artikulua.

Kartelak, horma-irudiak eta idazkunak. Mugak: 59. artikulua.

Itxiturak. Mugak: 60. artikulua.

Lurpeko hodieria. Mugak: 61. artikulua.

Negutegiak. Mugak: 64. artikulua.

Lurketak. Mugak: 65. artikulua.

Baso sailak. Mugak: 66. artikulua.

Airetiko lineak. Mugak: 68. artikulua.

Udal bideak eta pasealekuak. Mugak: 69. artikulua.

#### Erabilera debekatuak:

- Jabari publikoko zona: gainerakoak.
- Jabari publikoko zona: gainerakoak.

#### 3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Erakunde eskudunaren araberakoak.

#### 3.5. PLANEAMENDUA ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Erakunde eskudunaren araberakoak.